



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko azaroaren 17a

141. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena (3. or.).
- Kontratu Publikoei buruzko Foru Lege proiektua. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (5. or.).
- 2018rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Osoko zuzenketak (5. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egiazko lanbide-karrera bat aurreratu eta proposatu dezan, helburuak betetzean oinarritzen dena. Mónica Doménech Linde andreak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Adimen Artifiziala sar dezan Nafarroako ekonomia bultzatzeko funtsezko sektoreen artean, zeinak Espezializazio Adimendunerako Estrategian jasotzen baitira. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Farmazia Laguntzari buruzko 12/2000 Foru Legea alda dezan, halako moduan non Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua izanen baita titulartasun pribatuko zentro soziosanitarioetan farmazia laguntza eta osasunerako eskubidea bermatuko dituen bere giza baliabideen eta baliabide materialen bitartez. María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun-kostuen eta egoitzen erabiltzaileek ordaintzen dituzten tarifen arteko erlazioari buruzko txosten bat aurkez dezan. María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da energia fotovoltaikoa ekoizten duten elkarte nazionalebekiko negoziazio-mahai bat abiaraz dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (11. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da lan-eskaintza publiko bat egin dezan Nafarroako hezkuntza-sistemaren beharrezan eta errealitatearen arabera izanen dena. Akats zuzenketak (13. or.).

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren erabakia errefusatzeko baitu, Urrezko Domina Arturo Campiónen figurari ematekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak uste baitu diabetesaren alorrean emaitzak lortzeko ezinbestekoa dela diabeteserako botika eta teknologiak eskuratu ahal izatea. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu sexuagatiko soldata-diskriminazioaren aurkako “Nik doan lan egiten dut” kanpainarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, zenbait delitu direla-eta atxilotutako pertsonen jasotzen zituzten gizarte-laguntzei buruzkoa. Mónica Domenech Linde andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxa Fundazioak euskarari ematen dion erabilera dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (16. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko azaroaren 13an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2017ko azaroaren 8an hartutako Erabakiaren bidez, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Kontuan izanik gehiengo osoa behar dela lege horren seigarren artikulua onesteko, zeina Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzeari buruzkoa baita, bidezkoa da, Erregelamenduko 152.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, aipatu foru lege proiektutik bereiztea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzeari dagokion edukia, eta aparteko proiektu bezala izapidetzea, Erregelamenduaren 153. artikuluan aurreikusitako prozeduraren bidez.

Horregatik guztiagatik, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127, 152 eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektutik bereiztea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen aldaketa.

2. Xedatzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraituz izapidetu dadin, Erregelamenduko 152 eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunekin.

3. Ogasuneko eta Finantza Politikako Batzordeari ematea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **epe bat** irekiko da, **2017ko azaroaren 30eko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, talde parlamentarioek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Iruñean, 2017ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Parlamentuak Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektua izapidetuko du,

zeinaren seigarren artikuluen bidez aldatu egiten baita Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea. Aldaketa hori proiektu horretatik bereizi eta foru lege proiektu honetara ekarri da; izan ere, 2/1995 Foru Lege hori aldatzeko beharrezkoa da Nafarroako Parlamentuko kideen gehiengo osoak onestea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 18 bis 2 artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 152. artikuluan xedatuaren arabera.

Artikulu bakarrak trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu beharreko tarifa berriak dakartza. Tarifa horiek eguneratzeko aintzat hartu den irizpidea da Toki ogasunek transferentzia arruntan bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtserako urtero finkatzen den igoera aplikatzea. Horrekin lotuta, Toki ogasunek transferentzia arruntan bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa

2018ko eta 2019ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen foru legearen aurreproiektuak honako igoera ezartzen du 2018rako: kontsumorako prezioen indizeak Nafarroako Foru Komunitatean izandako portzentaje-igoera, ekainetik ekainera neurtua, gehi ehuneko bi. 2016ko ekainetik 2017ko ekainera bitarte KPIak izandako aldaketa % 1,1ekoa izan da; beraz, transferentzia arrunten funtsaren zenbatekorako aurreikusitako aldaketa orokor garbia ehuneko 3,1ekoa da, eta horixe da zergaren tarifei aplikatzeko proposaturiko eguneratze-portzentajea, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Artikulu bakarra. Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzea

2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 162.1. artikuluko testu hau izanen du:

“1. Tarifa hauei jarraikiz eskatuko da zerga:

Kuotak:

a) Turismoak:

- 8 zaldi fiskal baino gutxiagokoak: 20,02 euro.
- 8tik 12 zaldi fiskal bitartekoak: 56,30 euro.
- 12 zaldi fiskaletik 16ra bitartekoak: 120,09 euro.
- 16 zaldi fiskal baino gehiagokoak: 150,17 euro.

b) Autobusak:

- 21 leku baino gutxiagokoak: 140,10 euro.
- 21 lekutik 50era bitartekoak: 200,18 euro.
- 50 leku baino gehiagokoak: 250,23 euro.

c) Kamioiak:

- 1.000 kg. baino gutxiagoko karga erabilgarria dutenak: 70,13 euro.
- 1.000 kg.-tik 2.999 kg.-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak: 140,10 euro.
- 2.999 kg.-tik 9.999 kg.-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak: 200,18 euro.
- 9.999 kg. baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak: 250,23 euro.

d) Traktoreak:

- 16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak: 34,39 euro.
- 16tik 25 zaldi fiskal bitartekoak: 68,76 euro.
- 25 zaldi fiskal baino gehiagokoak: 137,36 euro.

e) Atoiak eta erdi-atoiak:

- 1.000 kg. baino gutxiagoko karga erabilgarria dutenak: 35,10 euro.
- 1.000 kg.-tik 2.999 kg.-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak: 70,13 euro.
- 2.999 kg. baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak: 140,10 euro.

f) Bestelako ibilgailuak:

- Ziklomotorrak: 5,04 euro.
- 125 cc.-ra bitarteko motozikletak: 7,57 euro.
- 125 cc. baino gehiagoko motozikletak, 250 cc.-ra bitarte: 12,55 euro.
- 250 cc. baino gehiagoko motozikletak, 500 cc.-ra bitarte: 24,74 euro.
- 500 cc. baino gehiagoko motozikletak, 1.000 cc.-ra bitarte: 49,51 euro.
- 1.000 cc. baino gehiagoko motozikletak: 99,01 euro”.

Kontratu Publikoei buruzko Foru Lege proiektua.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko azaroaren 13an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkarleen eledunek eskatu dute Kontratu Publikoei buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea luzatzea.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Kontratu Publikoei buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2018ko urtarrilaren 9ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2017ko irailaren 21eko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

2018rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua.

OSOKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen 2018rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketak. Proiektu hori 2017ko azaroaren 9ko 137. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, 2018rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztua.

Zioak: Nafarroako Gobernuak kontu kontinuitate batzuk igorri dizkio Parlamentu honi, eta horiekin, Nafarroako herritar guztientzat egindako zerga-igoera orokorra onbideratu beharrean, beste koska bat estuagotu du, berriz ere modu orokorrean igo baititu zergak, halako moduz non lortu baitute Nafarroa izatea Espainian zerga gehien ordaintzen den erkidegoa.

Igoera horiek gertatu dira, batez ere, etxebizitzaren kenkaria bertan behera utziz, aurrezkiarekin lotutako fiskalitatea handituz eta pentsio-

planak dituztenen kenkariak okerragotuz, oinordetzen eta jaraunspenen zerga handituz eta, azkenik, enpresentzako pizgarri fiskalak kenduz eta gutxituz. Kontseilariak lan-bilkuran esan zuen bezala, aurrekontu hori diru-sarrerak nahiz gastuek osatuta dago. Kontuan izanda diru-sarrerak hauek zerga-erreformaren ondorioa direla, gure ustez aurrekontu hauek ez dira Nafarroak behar dituenak.

Zergen igoera orokor hori justifikatzeko, adierazi da jokabide hori baliagarri gertatu dela politika sozialak hobetzeko; hori, ordea, errealitate oso urrun dago, salbu eta ulertzen badugu politika sozialak direla soilik errenta bermatura bideratuta daudenak. Izan ere, bistan da osasun-prestazioak ez direla hobetu, itxaron-zerrendek handitzen jarraitzen dutela, hezkuntzan ez dela hobekuntzarik egin eta, gainera, aurrekontu honetan nabarmena dela inbertsiorik ez dagoela. Nafarroan 2018an egingen den inbertsio publiko handiena Sustapen Ministerioak Abiadura Handiko Trenean egingen duena izanen da, Nafarroako Gobernuari sostengua ematen dioten alderdiak aurka dauden arren.

Herritarrei eta enpresei zergak handitu zaizkien urte hauetan, zeinetan oro har hazkunde ekonomikoko testuinguru orokorra gertatu baita, aurrekontuek gastu publikoa handitu badute ere, herritarrek jasotzen dituzten oinarritzko zerbitzuetan ez da funtsezko hobekuntzarik edo gastu-handitzearekin proportzioan datorren hobekun-

tzarik izan. Emandako zerbitzu gehienetan, hezkuntzan eta osasunean kalitatea ez da modu ohargarrian handitu krisi ekonomikoko urteekin alderatuta; urte haietan, izan ere, gastuari mugapean eutsi behar izan zaio administrazio guztietan.

Hala eta guztiz ere, zenbait kolektiborentzako diru-laguntzak eta zuzeneko laguntzak modu esponentzian handitu dira, baiki; kolektibo horietako asko erakunde edo ideia identitario eta nazionalistekin lotuta daude. Halatan, egiaztatu dugu, esate baterako, euskararen hedapena babesten duten erakundeei diru-laguntzak emateko partidetan % 150 inguruko igoera izan dela gastu publikoan bi urte hauetan zehar, eta aldi berean, herritarrei ahalegin fiskal handiagoak eskatzen zaizkiela. Horrek, hazkunde iraunkorra segurtatu beharrean, kili-kolo jartzen du aurrerapen sozial orekatu eta ekitatiboa, eta zama bat da aurrekontuaren kudeaketa eraginkorrerako.

Bestetik, egun hauetan Nafarroako Gobernuaren Erriberan autopromozio kanpaina bat egiten saiatu den arren, aurrekontu hauek agerian jartzen dute hori besterik ez dela izan, autopromozioa, eta aurrekontu horietan inolaz ere ez dela Erriberarentzat inongo hobekuntzarik jaso.

Hori guztia dela eta, osoko zuzenketa hau aurkezten dugu, eta aurrekontuak Gobernuari itzultzeko eskatzen dugu.

2. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

2018rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa, hura Nafarroako Gobernuari itzultzekoa.

Zioak: Nafarroako Gobernuak aurkeztu dituen 2018rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek arduragabeak dira, eta ezin gauzatzeko diru-sarrera batzuetan oinarrituta daude; gainera, horiek lortzen badira, langileak, enpresak eta aurrezleak esplotatzearen ondorioz izanen da.

Aurrekontuek hedakorrek izan behar dute, eta beharrezkoa da zergak jaistea, nafar bakoitzak diru gehiago erabilgarri izan dezan kontsumorako edo aurrezpenerako; gauza bera egin behar da enprekin ere, inbertsioa sustatze aldera.

Aurrekontu on batzuek osasun alorreko, hezkuntzako eta gizarte politiketako gastu soziala mantendu behar dute zerga baxuagoak ezarrita, beste autonomia erkidego batzuetan egiten den moduan.

Aurrekontu hauen lehentasunak enplegua sortzea izan beharko luke; izan ere, gizarte politikarik onena da lanpostu bat izatea, eta Nafarroako Gobernuak ez du halakorik sustatzen. Nahiago du laguntzak sustatu eta gizarte mendeko bat sortzea, gizarte aktibo eta produktibo baten orde.

Ez du neurrik hartzen pobrezia larria ezta gizarteratze falta ere arintzeko, eta horren froga da errenta bermaturako partida handitzen duela; izan ere, horrek esan nahi du gero eta pertsona gehiagok dutela gizarte laguntzen beharra bizi ahal izateko. Horrenbestez, pobrezia murriztu beharrean, areagotzen ari zarete. Baina areagotzen ez direnak dira errenta bermatu hori jasotzen duten pertsonak kontratatuzko laguntzak. Hau da, prestazioak handitzen dituzte, baina ez ordea kontratazioaren sustapena.

Gobernu honek ez du sinesten enplegarritasunaren sustapenean, eta azpiegiturak ere ez ditu ezein mailatan hobetzen, ez aipatzearen gure erkidegoko bi lan handiekiko duen apustu falta: Abiadura Handiko Trena eta Nafarroako Ubidea, Espainiako Gobernuari esker aterako baitira aurrera.

Familia babesteko politiken arrastorik ez dago, gizartearen funtsezko oinarri badira ere, eta ez da inongo ekintzarik abian jartzen Nafarroako ikasle- hezkuntza hobetzeko. Hobekuntzak eta abantailak dituzten ikasle bakarrak dira euskaraz ikastea hautatzen dutenak.

Hain zuzen, euskara da aurrekontu orokor hauen proiektu nagusia; izan ere, hizkuntz-nazionalismoa inposatzeko etengabeko irrikan, bere partida neurrigabeki areagotzen duen departamentu bakarra Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua da.

Horrenbestez, agerikoa da aurrekontu hauen prestaketan euskal nazionalismorako joera argia; izan ere, irizpide nahierazko eta ideologikoak izan dira aurrekontu hauetan aplikatu direnak partidak esleitzeko orduan, eta hori alderdikeriaren eta ekitate faltaren adibide garbia da.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Alderdi Popularrak osoko zuzenketa hau aurkezten du.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egiazko lanbide-karrera bat aurreratu eta proposatu dezan, helburuak betetzean oinarritzen dena.

MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egiazko lanbide-karrera bat aurreratu eta proposatu dezan, helburuak betetzean oinarritzen dena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko parlamentari Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, helburuak betetzean oinarritutako lanbide-karrera bati buruzko honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Lanbide-karrera da mailaz igotzeko aukeren eta lanbidean aurrera egiteko ikuspegi multzoa, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen arabera.

Administrazio Publikoan lan egiten dutenen jardunaren ebaluazioa prozedura bat da, zeinaren bidez neurtzen eta balioesten baitira jokabide profesionala eta errendimendua edo emaitzak lortzea.

Horiek horrela, langileek egindako lanaren gaineko kontrola, helburu zehatz eta neurgarrien

betetze maila baloratzekoa, zuzenean lotuta dago lanbide karrerarekin.

Administrazio publikoan, gaur egun, ez dago benetako lanbide karrera bat, helburu-betetze horretan oinarritzen denik, eta halaxe adierazi du Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak, talde parlamentario honi erantzutean.

Erantzunak honela dio: Teknologia berrien bilakaeraren aurrerapenetan, besteak beste, telelana dugu, lanaldi presentzialaren bilakaera logikoa, Administrazio Publikoan azkenean abiarazi beharko dena.

Eta Administrazio Publikoan ezartzeko aldaketa bat behar da giza baliabideen kontrolaren eremuan, alegia, presentzia denborak neurtzen dituen kontrol batetik betetako helburuak kontrolatzera aldatzea.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernua premiatzen da:

1. Egiazko lanbide-karrera bat aurreratu eta proposatu dezan, helburuak betetzean oinarritzen dena.

2. Zerbitzuak modalitate ez-presentzialean ematea sustatu dezan, enplegatu publikoendako telelanaren formula erabiliz, norberaren bizitza, familia-bizitza eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko neurri gisa.

3. Sindikatuekin egin beharreko negoziazio kolektiboan egiazko lanbide karrera bat sartzea eta aurkeztea, oinarriak izanik helburuak betetzea eta aldaketa bat egitea giza baliabideen kontrolaren eremuan, alegia, presentzia denborak neurtzen dituen kontrol batetik betetako helburuak kontrolatzera aldatzea.

Iruñean, 2017ko azaroaren 3an.

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Adimen Artifiziala sar dezan Nafarroako ekonomia bultzatzeko funtsezko sektoreen artean, zeinak Espezializazio Adimendunerako Estrategian jasotzen baitira.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Adimen Artifiziala sar dezan Nafarroako ekonomia bultzatzeko funtsezko sektoreen artean, zeinak Espezializazio Adimendunerako Estrategian jasotzen baitira.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Adimen artifiziala, bere garapen azkarrarekin, aldaketa sakona eragiten ari da munduko bizitza soziala eta ekonomikoa. Makinei erabakiak hartzea ahalbidetzen dieten printzipioak pertsonen gidatu, erabaki eta eraiki behar dituzte, eraldaketa hori enplegua eta ongizatea laguntzen duten gizarte-, hezkuntza- eta ekoizpen-printzipioen bidetik bultzatzeko.

Adimen artifizialaren inguruan berriki egindako azterlanek erakusten dutenez, haren erabilera egokiak bikoiztu egin ditzake hazkunde tasak gaurdanik 2035era arte. Izan ere, azterlan garrantzitsuenetako baten arabera, adimen artifiziala funtsezko faktorea da kapitalaren eta lanaren muga fisikoak gainditzeko, baliorako hazkunderako iturri berriak irekitzerakoan.

Gaur egungo konputazio ahalmenak, Big Data-ren ustiapenak eta beste hainbat elementuk – kamera, robot eta sentsoreen erabilerak, esate

baterako– osatzen dute adimen artifizialaren oinarritzko egitura, zeinak aukera sorta handia eskaintzen baitu 4.0 industriarako, bai eta lanbide askotarako ere, haien 'modus operandi', hainbatetan mendeak dituen, aldatuko delako; eta beste hainbeste gertatuko da zientzia, ikasketa edo asiaren arloan.

Robotek askatasunerako bidean abiatu dira, baina guk, gizakiok, kudeatu behar ditugu haien jardunerako koordenadak, makinek egiten duten giza adimenaren prozesuen simulazio horretan sartuta egon dadin ikaskuntza soziala, pertsonen ongizatera bideratutako arrazonamendu bat eta autoikaskuntzako algoritmoak, berdintasun, ekitate eta askatasun printzipioetan oinarrituak.

Nafarroa ez dago egoera horretatik kanpo, eta sakondu behar du bere eragile sozial eta estamentu guztien prestakuntzan, iritsi zaigunari eta iritsiko zaigunari begira. Arreta eman behar zaie hezkuntza, industria, ekonomia eta gizarte arloei, honako hauek zaintze aldera: kalitateko enplegua mantentzea eta handitzea, adimen artifizialaren orainarekin eta etorkizunarekin bat datorren ikaskuntza, ekoizpen- eta zerbitzu-ereduaren egokitzea, eta, ahal den neurrian, lan-eskuaren ordezkioak gizatiartzea.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Adimen Artifiziala sar dezan Nafarroako ekonomia bultzatzeko funtsezko sektoreen artean, zeinak Espezializazio Adimendunerako Estrategian jasotzen baitira.

– Nafarroako administrazioa sar dezan nazioarteko azterketa-eremuetan eta foroetan, zeinak jorratzen ari baitira munduko eta Europako ekonomian eta, beraz, bertako herrialde eta erregio guztietakoan adimen artifizialak izanen duen eragina.

– Nafarroan adimen artifizialaren arloan dagoen prestakuntza-eskaintza azter dezan, arreta berezia emanez ingeniariak, zientzia zehatzen datuen azterketaren, zientzia eta teknologiaren sustapenari, eskaintza egokitzu gaurko eta etorkizuneko eskaerara.

– Zentsu bat egin dezan, ekoizpen katean giza lan eskuaren ordeztako elementuak dituzten enpresa guztiekin, elementuak mota, sektore eta jardueraren arabera sailkatuz, erabiltzen den “baliabide robotikoaren” irudi erreala eskuratzeko.

– Txosten bat presta dezan, adimen artifiziala iristeak Nafarroako Foru Komunitatean izanen duen eraginaren gainekoa, bereziki enplegarritasunean, bidezko diren babes neurriak hartuz.

Iruñean, 2017ko azaroaren 3an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Farmazia Laguntzari buruzko 12/2000 Foru Legea alda dezan, halako moduan non Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua izanen baita titulartasun pribatuko zentro soziosanitarioetan farmazia laguntza eta osasunerako eskubidea bermatuko dituen bere giza baliabideen eta baliabide materialen bitartez.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Farmazia Laguntzari buruzko 12/2000 Foru Legea alda dezan, halako moduan non Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua izanen baita titulartasun pribatuko zentro soziosanitarioetan farmazia laguntza eta osasunerako eskubidea bermatuko dituen bere giza baliabideen eta baliabide materialen bitartez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Teresa Saez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren jatorria jabeldura bat da, titulartasun pribatuko zentro soziosanitarioetan

laguntza farmazeutikoa ematearen gaineko politikari buruzkoa, 2017ko azaroaren 2ean 9-17/ITP-00022 espedientearekin eztabaidatutakoa.

Farmazia Laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legeak ezartzen du farmazia-zerbitzu bat nahitaez ezarri behar dela laguntza behar dutenentzako ehun plaza edo gehiagoko zentro soziosanitario guztietan. Halatan, 2002tik aitzina farmazia-zerbitzuak sortzen ari dira titulartasun pribatuko zentro soziosanitarioetan, eta Nafarroako Gobernuak finantzatu du, akordioa nahiz dirulaguntza tarteko, horien abian jartzea eta mantentzea, halako moduan non enpresa pribatu batzuei –horietako gehienak, irabazi asmokoak– funts publikoak transferitu baitzaizkie, legearen arabera edukitzera behartuta dauden baliabide batzuk izan ditzaten. Azken diru-laguntzak, azaroaren 1054/2016 Ebazpenaren bidez arautuak, 5.456.000 euroko zenbatekoa zuen lau urtetarako. Kopuru hori aski zen Nafarroako osasun sistema publikoari baliabide bat eskaintzeko, zeinaren bidez titulartasun pribatuko zentro soziosanitarioei farmazia laguntza eman ahalko zaien, oraingo baldintza beretan edo hobetan.

Beste alde batetik, lehenago aipaturiko zentro soziosanitario pribatuetako farmazia zerbitzuetako medikamentuen fakturazio sistema, ikusi denez, inefizientea da nondik begiratzen den ere, eta zentroen titulartasuna duten enpresen maltzurkeria ahalbidetzen du. Horrela islatu da 2016an AMMA taldeko zahar-etxeei egindako auditorian: hornitzaileei ordaindutakoaren eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari fakturatutakoaren arteko aldea 248.965,13 eurokoa da.

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioaren ustez bidezko da eredu aldaketa bat egitea, farmazia zerbitzua eta osasunaren eskubidea osasun publikoaren eta bertako profesionalen bidez bermatzeko eta, aldi berean, baliabide publikoen kudeaketan efizientzia eta kontuen ematea lortzeko.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Farmazia Laguntzari buruzko 12/2000 Foru Legea alda dezan, halako moduan non Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua izanen baita titulartasun pribatuko zentro soziosanitarioetan farmazia laguntza eta osasunerako eskubidea bermatuko dituen bere giza baliabideen eta baliabide materialen bitartez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, lehenago aipatutako

lege aldaketaren ondotik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eros ditzan –era zentralizatuan eta kontratazio publikoak eskaintzen dituen aukera guztiak erabilia– titulartasun publikoko zentro soziosanitarioetan ingesatutako pertsonendako medikamentuak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, gaur egun egoitza pribatuen titulartasuna duten enpresak finantzatzera bideratzen den aurrekontuak erabil dezan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarentzat, horrek bere ahalmen logistikoa indartu behar izanez gero, hala biltegiak edo ekipamenduak edukitzeko nola eginkizun eta jarduera berri horiei ekiteko.

Iruñean, 2017ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun-kostuen eta egoitzen erabiltzaileek ordaintzen dituzten tarifen arteko erlazioari buruzko txosten bat aurkez dezan.

MARÍA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAYALDE LAZKANO SALA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita osasun-kostuen eta egoitzen erabiltzaileek ordaintzen dituzten tarifen arteko erlazioari buruzko txosten bat aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Laz-

kanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak, 3. artikuluan, honela dio:

1. Foru Komunitateko lurraldearen barrenean osasun-laguntza publikoa Nafarroako edozein udaletan bizi direnengana zabalduko da, haien legezko egoera edo administrazio egoera edozein dela ere.

2. Laguntza sisteman sartzeko nola osasun prestazioak jasotzea berdintasun eraginkorreko baldintzetan eginen da.

Era berean, maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuak, Gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea garatzen duenak, nahitaez bete beharreko baldintza eta betekizunak ezartzen ditu, eta haien artean kokatzen du Medikuntza Orokorreko, Psikologiako, Gizarte Laneko eta Fisioterapiako espezialistak, norberarenak edo itunduak, nahitaez eduki beharra.

Halaber ezartzen ditu zuzeneko arretarako langileak, erizain diplomatuak, lan terapeutak eta

zaintzaileak; gutxieneko ratioak ezartzen ditu, bai eta zentroan etengabe egon behar izatea ala ez, zenbait zerbitzutarako, esate baterako, eguneko zentro psikogeriatrikoetan, adineko pertsonentzako egoitza-arreta emateko zerbitzuetan, eta abar.

Hori guztia izanik ere, zenbait zentrotan, badi-tuzte zerbitzu batzuk, edukitzeko beharra izan gabe.

Horrek eragina du zerbitzuen kostuan eta erabiltzaileek ordaintzen dituzten tarifetan, eta Osasunari buruzko Legean jasotakoaren aurkakoa da. Koordainketa gertatzen ari da unibertsaltzat josten diren prestazioetan.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, sei hilabeteko epean txosten bat aurkez dezan, argitze aldera egoitza guzti-guztien egoera, osasun prestazioekin lotutako zerbitzuen kostuari dagokionez, eta, halaber, erabiltzaileek ordaintzen dituzten tarifetan sortutako eragina.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, txostena egin ondotik ken dezan egoitza zerbitzuetako osasun prestazioetan dagoen koordainketa.

Iruñean, 2017ko azaroaren 8an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano Sala

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da energia fotovoltaikoa ekoizten duten elkarte nazionalekiko negoziazio-mahai bat abiaraz dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita energia fotovoltaikoa ekoizten duten elkarte nazionalekiko negoziazio-mahai bat abiaraz dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioa-

ren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da energia fotovoltaikoa ekoizten duten elkarte nazionalekiko negoziazio-mahai bat abiaraz dezan

Hazkunde ekonomiko garrantzitsuaren egoera batean Espainiako 62.000 familiak (haietako 8.600 baino gehiago Nafarroakoak) hautatu zuten familia aurrezkiak bideratzea energia berriztagarriak sortzera. Abiapuntu horrekin Espainiak eskura zuen Kiotoko nazioarteko konpromisoak eta Europar Batasuneko helburuak, ingurumen arlokoak, betetzea. Gobernuak inbertsio mota hori sustatu zuen, errentagarria, guztiz segurua, eta gizarte konpromisokoa zelakoan, eta Industria Ministerioak berak gomendatu zuen instalazioen kostuaren % 80ko finantziazioak izatea.

Hala ere, plantak finantzatuta, ezarrita eta abian egon eta hilabete gutxitara energia fotovoltaikoan inbertsioa egindako Espainiako 62.000 familiak aurre egin behar izan zioten atzeraeragina zuten dekretuen sorta etengabe bati, zeinek modu kezkarrian moztu baitituzte Estatuko Aldizkari Ofizialetan agertzen ziren errentagarritasunak, jatorrizko baldintzak finkatu zituztenak, bermatzen ziren diru-sarreraren % 50eraino iritsi baitira pilotutako murrizketak; horrek ezinezko bihurtzen du orain ekoizleek beren gain jasotako ordaintzeko konpromisoak. Familia horiek, guz-

tira, 20.000 milioi euro jarri zituzten, eta horietatik 18.000 milioi euro bankari zor dizkiote.

436/2004 Errege Dekretuak, eta geroago 661/2007 eta 1578/2008 dekretuek, inbertsioa sustatu zuten azpisektore horretan, teknologia berritzaileenak ezarri eta garatzeko. Era horretan bete nahi ziren Europako konpromisoak, berotegi efektuko gasen isuria murriztekoak. Hala ere, 2010ean, inbertsio handiak eginda eta beste batzuk ere bidean egonda, Gobernuak bere politika aldatu zuen atzeraeragineko bi arauen bidez: azaroaren 19ko 1565/2010 Errege Dekretua eta abenduaren 23ko 14/2010 Errege Lege Dekretua. Modu horretan bideragarritasunerako tarterik gabe utzi ziren partikularrek eta enpresek zazpi urtetan zehar sektore fotovoltaikoan bultzatutako ekimenak; hori konpentsatzeko kontratuaren denbora luzatu egin zen.

Testuinguru horretan, 2012tik aurrera, eta 1/2012 Errege Lege Dekretuaren bidez, erabaki da sorkuntza berriztagarriko planta gehiagoren ezarpena eragozte, eta 2013tik aurrera, "erreforma elektrikoa" deitu ohi den arau multzoarekin (9/2013 ELD, 413/2014 EA eta 1405/2014 IET Agindua) erabat aldatzea planten ordainketa, murrizketak ezarriz, batzuetan % 50erainokoak, lehenagoko ordainketak balioetsiz etorkizuneko ordainketak kalkulatzeko.

Europako Batzordearen Espainiako 2012-2015 aldirako Egonkortasun Programari buruzko irizpeneraren arabera. Horren ondorioz, Günther Oettinger Europako orduko Energia komisarioak funtsezkotzat jo zuen Espainiak berreskuratzea inbertitzaileen konfiantza, atzeraeraginezko arauketarik gabeko lege esparru batekin. Alderdi

Popularraren gobernuak inposatutako erreforma elektrikoaren ondoriozko inposaketek atzeraeraginezko aldaketa bat dakarte, 62.000 familia (haietako 8.600 Nafarroakoak) porrotera daramatzana, eta horrekin batera sektorearen segurtasun juridikoa eta Espainiako Estatuaren inbertitzaileei eta herritarrei begirako konfiantza, ondorio lazgarriekin: aurreriko ekonomikoan diren familiak.

Murrizketa horiek guztiak egin baziren pairatu dugun krisiaren izenean, Europak jasan duen krisi handiena, eta orain bertatik ateratzen ari bagara eta suspertze ekonomikoaren zantzuak ikusten badira, arrazoi handiago dugu familia horiei begiratzeko, fede onez jardun zutelako, beren Estatuarekiko konfiantzarekin, inbertsio ahalmena eginda.

Arestian azaldutako guztiagatik, Parlamentutalde Sozialistak ondoko mozioa aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuaren premiatzen du honako neurri hauek har ditzan

1. Energia fotovoltaikoa ekoizten duten elkarte nazionalerako negoziazio-mahai bat abiaraz dezan, fede oneko inbertitzaileendako onuragarri izanen diren akordioetara iristeko.

2. Protokolo bat idatz dezan, zeinetan behar diren neurriak hartuko diren Espainiako energia fotovoltaikoaren inbertitzaileek, ordainketa murriztu zaien horiek, ez dezatela jaso Energiaren Gutuna sinatu duten herrialdeetako inbertitzaileek baino tratatu txarragorik.

Iruñean, 2017ko azaroaren 9an

Eleduna: María Chivite Navascués

Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da lan- eskaintza publiko bat egin dezan Nafarroako hezkuntza-sistemaren beharrizanen eta errealitatearen arabera izanen dena.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat aurkitu da Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2017ko irailaren 28an egindako bileran, harturiko erabaki batean, zeina 2017ko urriaren 5eko 122. zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen. Horrenbestez, testu zuzena osorik argitaratzen da, akatsa zuzentze aldera. Hona:

“1. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du lan-eskaintza publiko bat egin dezan Nafarroako hezkuntza-sistemaren beharrizanen eta errealitatearen arabera izanen dena hezkuntzari, hizkuntzari nahiz gizarteari dagokienez. Hezkuntza Departamentuak ahalik eta plaza gehien eskainiko ditu

Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du 2017ko urriaren 31 baino lehen onets ditzan deialdi hori nahiz deialdiaren epeak.

3. Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du deitzen diren oposizioetan “zerrenda bakarra” deritzona ezartzea, eta Hezkuntza Departamentua premiatzen du bide hori ezar ez dezan”.

Iruñean, 2017ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren erabakia errefusatzeko baitu, Urrezko Domina Arturo Campiónen figurari ematekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko azaroaren 13an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren erabakia errefusatzeko du, Urrezko Domina Arturo Campiónen figurari ematekoa.

2. Parlamentuak Gobernuak premiatzen du birpentsa dezan erabaki horri sostengua ematen dion foru agindua”.

Iruñean, 2017ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak uste baitu diabetesaren alorrean emaitzak lortzeko ezinbestekoa dela diabeteserako botika eta teknologiak eskuratu ahal izatea.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko azaroaren 13an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak uste du diabetesaren alorrean emaitzarik onenak lortzeko ezinbestekoa dela diabeteserako funtsezkoak diren botika eta teknologiak eskuratu ahal izatea, bai eta autokontrolerako heziketa eta informazioa ere.

2. Nafarroako Parlamentuaren ustez, haurdunaldiaren aurreko eta ondorengo osasuna eta elikadura, bai eta haurtzaroaren lehen urteetakoa ere, 2. motako diabetesaren prebentziorako estrategien barruan sartu beharrekoak dira.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela osasuna eta diabetesaren nahiz

haurdunaldiko diabetesaren diagnosi goiztiarrak sustatzea, eta diagnosi horiek sartu behar direla jaio aurreko arretako bisita guztietan.

4. Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela osasun alorreko langileek prestakuntza jasotzea, haurdunaldian zehar diabetesa identifikatu, tratatu, kontrolatu eta horren jarraipena egin ahal izateko.

5. Nafarroako Parlamentuak uste du garrantzitsua dela bizitza estiloari buruzko programa integralak aurrera eramatea, elikadura eta jarduera fisikoa hobetzekoak”.

Iruñean, 2017ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu sexuagatiko soldata-diskriminazioaren aurkako “Nik doan lan egiten dut” kanpainarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko azaroaren 13an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak bat egiten du *Nik doan lan egiten dut* kanpainarekin.

2.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela Espainiako Gobernuak emakumeen eta gizonen arteko soldata-berdintasunerako lege bat lehenbailehen gara dezan, ordainsari-berdintasuna desagerraraziko duena eta etxeko nahiz zaintzako lanetan emakumezkoek jasaten duten gaitzakeria amaiera emanen diona, Kongresuak aurtengo otsailean premiatu zuen moduan.

3.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela Espainiako Gobernuak bete ditzan Europako Batzordeak soldata-berdintasunaren alorrean emandako gomendioak eta, zehazki, gure legedian jasotzea *balio bereko lana* kontzeptuaren definizioa.

4.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak baliabide gehiago jartzea soldata-arraila murrizteko, justiziar eta ekitateari dagokien arazo bat baita”.

Iruñean, 2017ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, zenbait delitu direla-eta atxilotutako pertsonak jasotzen zituzten gizarte-laguntzei buruzkoa.

MÓNICA DOMENECH LINDE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Domenech Linde andreak aurkeztutako galdera, zenbait delitu direla-eta atxilotutako pertsonak jasotzen zituzten gizarte-laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari axikita dagoen Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Eskubide Sozialetako lehendakariordeak Parlamentuan egindako agerraldi batean adierazi zuen errenta bermatua kendu zaiela zenbait delitu direla-eta atxilotutako hamar pertsonari. Pertsona horietako batzuk Andre Maria Erregina auzoko txabola-kokalekuan bizi izandakoak dira. Atxilotutako beste pertsona batzuek ere jasotzen zuten errenta bermatua.

Adieraziko al diguzu ea atxilotutako beste sei pertsonak etxebizitza sozial batean bizi ote ziren, errenta bermatua jasotzeaz gain?

Adieraziko al diguzu ea atxilotutako sei pertsona horietako bakoitzak noiztik jasotzen zuen errenta bermatua?

Zehatz al dezakezu ea etxebizitza sozialetan bizi ziren ala ez, noiztik bizi ziren eta familia-nukleo berekoak ziren ala ez?

Atxilotutako hamar pertsona horietako bakoitzak jasotako gizarte-laguntzen berri xehakatu ematea eskatzen dut, bai eta adieraz dakigula jasotako gizarte-laguntzak itzul ditzaten eskatu ote zaien, zer baldintzatan eta noiz.

Iruñean, 2017ko azaroaren 9an

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

Galdera, Nafarroako Kutxa Fundazioak euskarari ematen dion erabilera dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutxa Fundazioak euskarari ematen dion erabilera dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Kutxa Fundazioaz eta bere web orrian nahiz bere jarduketa ezberdinetan euskarari ematen dion erabileraz, jakin nahi dut ea Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten duen.

Iruñean, 2017ko azaroaren 9an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro